



Save the Children

ZENBAT KOSTATZEN DEN HAURRAK HAZTEA EUSKADIN 2022

Ekaina_2022



savethechildren.es

Aurkibidea



3 **Sarrera**

5 **Zergatik da garrantzitsua 2022an haurrak haztea zenbat kostatzen den kalkulatzea?**

8 **Haziera-kostua 2022an**

12 **Haziera-kostua, adinaren arabera**

17 **Zer eragin izan zuen covid 19-ak hazieran?**

19 **Funtsezko zer politika behar dira euskadin, haur eta nerabeen haziera babesteko?**

22 **Metodologiari buruzko eranskina**



Argitalpen hau enpresa honek egindako azterlan batean oinarritu da: **KSNET, Knowledge Sharing Network S.L.** Hauek dira ikerketa-taldeko kideak: **Mireia Álvarez, Elena Costas eta María Sánchez.** **Kredituak:** Gizarte Intzidentziaren eta Haurtzaroko Politiken ataleko zuzendaria: **Catalina Perazzo Aragoneses;** Save the Children Euskadiko zuzendaria: **Charo Arranz Díez;** Intzidentzia Politikoaren ataleko zuzendaria: **Carmela del Moral Blasco;** egileak: **Alexander Elu Terán / Sara Polo Yrazu;** correctores: **Laura Casajús Izquierdo / Juan Palomo;** ilustraciones: **Germán Gullón (VALBHY Design);** arte y maquetación: **Elena del Real Moreno.** Argitaratzailea: Save the Children España, junio_2022.

Sarrera

Seme bat edo alaba bat haztea poz-iturri da, baina ahalegina eskatzen du, eta kostu ugari dakartza. Etxean haurrak sartzen direnean, lehendik zeuden gastuak areagotu egiten dira, eta beste batzuk eransten zaizkie gastu horiei; aldi berean, bilakatu egiten dira horiek, hazkuntzako etapetan zehar: sehaska, haur-kotxea, pixoihalak eta biberoiak lehenik, ohea, eskolako materiala, garraioa gero, edota sakelako telefonoa....

Gastu horiei aurre egiteko arazoak dituzte Euskadiko familia askok; izan ere, Euskadin, haurren eta 14 urte artekoen % 13,7 mantentze-pobrezian bizi da, hau da, ez du behar adinako diru-sarrerarik beren oinarrizko beharrak asetzeko (PGEI, 2020).

Aldi berean, guraso izan nahi luketen asko atzera botatzen ditu haurrak hazteak berarekin dakarren gastuak, ezin diotelako aurre egin kostu handi horri. Horregatik, ugalkortasun-maila oso txikia da Euskadin: ugalkortasun-indizea emakumeko 1,2 jaiotzakoa da (Eustat, 2020).

Bi arazo horiek, neurri handi batean, haurren hazkundera euskarri publiko nahikorik ez duelako gertatzen dira. Azkenaldian aldaketa nabarmen batzuk izan dira, batez ere pobrezia larrian dauden edo diru-sarrera gutxi dituzten familiei zuzendutako laguntza osagarrietan ardaztuta; baina, hori horrela izanik ere, Euskadiko eta estatuko administrazioek ez dituzte abian jarri EBko gainerako herrialdeetan daudenekin homologa daitezkeen hazkuntzarako laguntza-politikak, gure etorkizuneko inbertsio gisa ikusten dutenak auzi hori, haur eta nerabeen erabateko garapenaren eta haien gaitasunen aldeko apustua eginez eta kontuan hartuta funtsezko faktorea dela hori guztia, ekoizpen-sisteman esku hartu dezaten gerora eta, hortik abiatuta, norberaren eta gizarte osoaren ongizatea ziurta dadin.

Horregatik, eta aintzat hartuta esakune bat, hots, neurtzen ez dena ezin dela hobetu, Euskadin haurrak hazteak dakarren gastuaren kuantifikazio bat egin du Save the Childrenek etapaz etapa. Hala, 2018an egindako azterlana eguneratu dugu, hazkuntzarako beharrezkoak diren produktuen saskian eta horien prezioetan izandako aldaketetan oinarrituta; batez ere, kontuan hartuta ondasun eta zerbitzuak zenbat garestitu diren azken hilabeteotan –horietako batzuk funtsezkoak dira haurren eta nerabeen hazkuntzan–.

Horrekin guztiarekin, hainbat galderari erantzuteko beharrezkoa den oinarri kuantitatiboa zehaztu nahi dugu; horrelako galderari erantzuteko, esaterako:

- » ***Zein da Euskadin 2022an haur edo nerabe baten oinarrizko beharrak asetzeak dakarren gutxieneko gastua?***
- » ***Zer bilakaera izan du 2018tik?***
- » ***Nola egiten diete aurre oso egoera zailean dauden familiek?***

Eta, begien bistako alderdietan oinarritua, kontu honi heltzeko politika publiko egokiagoak proposatu nahi ditugu.

Zergatik da garrantzitsua 2022an haurrak haztea zenbat kostatzen den kalkulatzea?

Familia askok gogor borrokatu behar dute, beren seme-alabak ahalik eta baldintza onenetan garatu daitezen. Hala ere, ez dituzte guztiek oinarrizko ongizate-maila eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideak.

Haurren eta nerabeen ongizateak eragin positiboa du gizarte osoan, eta, beraz, politika publikoek babesa eman behar diote horri.

Bai Espainiako gizarte-babeseko sistema eta bai Euskadikoa OCDEko batez bestekoaren oso azpitik daude haurtzarora zuzentzen den BPGaren ehunekoari dagokionez, eta, familia-politiketan, defizit historikoa adierazten du horrek. Euskadin, gastu publikoak ez da iristen gure inguruko herrialdeetako¹ batez bestekoaren herenera ere. Arlo horretako laguntza publikoen maila horiek oso urrun daude hazkuntzaren kostuari estaldura egokia ematek, eta, beraz, ez diote heltzen haurren pobrezia handiaren arazoari ere. Gainera, azken datuen arabera, areagotu egin da haurren arteko pobrezia, esparru horrek hartzen dituen dimentsio guztietan, eta, hala, azken urteotako joera berretsi ahal izan da: pobrezia seme-alabak dituzten familiek pairatzen dute batik bat². Euskadiko familien % 12,7k ez du diru-sarrerera nahikorik beren etxeetako haur eta nerabeen oinarrizko beharrak asetzeko, eta 2008. urteaz geroztik, tasarik handiena da hori.

Horrek adierazten du Euskadin gaitasun txikia dagoela haurrei zuzendutako laguntza publikoa banatzeko; izan ere, Euskadin, diru-transferentzia publikoek (pentsioak ez direnak) eta diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako orain arte badute ezaugarri bat: haur-pobrezia gainerako biztanleriarena baino neurri txikiagoan murrizten dute, eta urrun daude EBko beste herrialde batzuetan lortzen diren emaitzetatik.

Haurren atalean egiten den ahalegin publiko txiki horrekin batera, kontuan hartu behar da egoera horrek zerikusia duela Euskadin eta estatuan laguntza horrek duen

1 EAE-ko Familiei Laguntzeko III. Erakundearteko Planaren Ebaluazio-Txostena 2011-2015. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, 2017, 145, 145 p.

2 Euskadin, mantentze-pobreziako egoeran dauden bi kasutatik bat (oinarrizko beharrak asetzeko nahikoa diru-sarrerarik ez izateari egiten dio erreferentzia termino horrek) 14 urte arteko seme-alabak dituzten familiei dagokie.

osaerarekin.

Biek dute haurren hazkuntzarako prestazioen sistema bat, sarrera-maila baxuenetan oso ardaztuta dagoena, eta, zenbaitetan, gainera, zenbateko txikiak dira. Egia da politika horiek berriki izan duten bilakaerak agerian jarri duela hainbat maila administratibotan egiten ari diren ahalegina – 1. koadroa-, baina, Save the Childrenen, uste dugu behar-beharrezkoa dela haurren hazkuntzara zuzendutako laguntza unibertsalean aurrera egitea, gure inguruko herrialdeetan egin denaren ildotik.



1. koadroa. **Hazkuntzarako laguntzen bilakaera azken aldian**



Iturria: geuk egina.

Bestalde, bada onura fiskalen sistema bat seme-alabak dituzten familientzat, ia unibertetsala dena, biztanleriaren sektore zabaletara iristen baita; baina kanpoan uzte ditu errenta txikiagoko familiak, ezin baitira itzulgarriak kasu horietan. Beraz, onuragarriagoak dira errenta handiagoko familientzat, eta joera erregresiboa dute.

Haurren hazieraren kostuan, eragin handia izan du Euskadin prezioek izan duten gorakadak ere. 2021. urte amaieran, inflazioa % 6,47koa zen Euskadin, eurogunean baino puntu eta erdi handiagoa (% 5) eta, oro har, Espainian izan zenaren antzekoa. Martxoan, urte arteko inflazioa % 9,5era iritsi zen Euskadin, eta % 9,8ra estatuan (% 7,5 eurogunean); igoera horiek zenbait multzotan gertatu ziren bereziki, hala nola elikagaien eta alkoholik gabeko edarien multzoan (% 6,8), eta, multzo horren aurretik, beste bi baino ez ziren kokatu: etxebizitza, ur, elektrizitate, gas eta beste erregai batzuen multzoa (% 33,1), eta garraioena (% 18,6). Inflaziorako joera horrek iraun egin du, hasiera batean hornidura energetikoaren kostuak gora egitearekin eta, ondoren, Ukrainako gerraren ondorioekin lotuta; eta egoera horrek guztiak ziurgabetasuna dakar.

Haziera-kostuaren lehen kalkuluak 2018ko uztailan egin genituen. Ordutik hasita 2022ko martxora bitartean, Euskadin prezioak % 11 igo dira. Emaitza hori haziera-kostuaren barneko atalekin alderatzen badugu, ikusiko dugu inflazioaren antzeko balioetan egin dutela gora zenbait partidak, hezkuntzak (% 14), elikadurak (% 13), arropa eta oinetakoek (% 10) edo aparteko gastuek (% 10); baina beste batzuk askoz gehiago igo dira, etxebizitza (% 75), hornigaiak (% 55) edo garraioa (% 27), esaterako.

Haziera-kostua 2022an

Definizioa eta gastu-taldeen kalkulua

Haziera-kostuaren kalkulua egiteko metodologia oinarrizko beharren aurrekontu bat egitean oinarritzen da, xede horretarako hainbat familia mota eta haurren etapak kontuan hartua³. Lehenengo, oinarrizko ondasun eta zerbitzuen saskia definitu behar da, bai eta haziera duin baterako horietako bakoitzean egin beharreko gutxieneko kontsumoa ere. Bigarrenik, INEren Familia Aurrekontuen Inkestako (FAI) datuak erabilia eta datu horiek beste datu-iturri batzuen bidez lortutakoekin bateratuz – estatu osoan dauden dendetako prezioak edota eskuragarri dauden bestelako txosten eta agiriak–, hazieraren barnean identifikatutako dimentsioetako (12) bakoitzaren gutxieneko gastua kalkulatu da.



1. Elikadura: Espainiako Pediatria Elkarteak gomendatutako dietaren kostua da, adin-tarte bakoitzari egokitutako kantitateetan, eta kontuan hartuta OMEk aholkatutako edoskitzaroa.



2. Higienea: higienerako produktuen saskiaren kostua, etapa bakoitzeko haurren beharren arabera, hasi hasierako urteetako pixoihal eta paper-zapi bustietatik, eta nerabezaroko desodorante, krema, konpresa edota tanpoietara.



3. Arropa eta oinetakoak: zenbat eta txikiagoak izan haurrak, orduan eta azkarrago aldatzen dira neurritz, eta, beraz, jantzi eta oinetakoak aldatu beharra ere handiagoa da. Adin bakoitzerako egokia den jantzi eta oinetakotan oinarrizko kopuru baten gastua zein izan daitekeen kalkulatu da.

3 Kalkulurako metodologiaren deskribapen xehaturako, ikusi eranskina.



4. Hezkuntza: haur eta nerabe guztiak eskola publikoetara doazela jo da, kalkulu hauetarako. Garrantzitsua da ez ahaztea 0-3 urte bitarteko haurrak haur-hezkuntzako zentroetara joan daitezkeela. Dena den, zentro horiek ez dira doakoak, eta haurrak horietara eramateko erabakia, famili askoren kasuan, lana eta bizimodu pertsonala bateratu beharraren ondorio da, eta ez hezkuntzaren ikuspegitik hartutakoa; horregatik, sorta hau txosten honetako kontziliazioaren atalean sartu dugu. Hezkuntza-gastua kalkulatzekoan, honako sorta hauek hartu dira kontuan: eskola-jantokia, ikasliburuak eta eskolako materiala.



5. Aisialdia eta jostailuak: kontuan hartu dugu jostailuen beharra gero eta handiagoa dela 0 urtetik 12ra bitartean. Adin horretatik aurrera, toki handiagoa hartzen dute aisiak eta teknologiko eta telefoniako produktuek.



6. Osasuna: familiek osasun-sistema publikoa erabiltzen dutela jo da. Hor sartzen ez diren beste kostu batzuk ere aintzat hartu dira, hala nola gomendatzen diren bi txerto, estaldurarik ez dutenak (errotabirusa eta B meningokokoa), odontologia eta botikak.



7. Alzariak eta tresneria: hasierako uneetan, beharrezkoak dira sehaskak edota haur-kotxeak, eta ondorengo urteetan, ohea, burukoak eta izarak, etab.



8. Etxebizitza: seme-alabarik ez izatetik seme-alabak izatera dagoen aldea kalkulatu da (gela bateko etxetik bi gela edo gehiagoko etxea izatera). Haurren etxebizitza-kostuari esleitu zaio alde hori, eta kostua familia motaren arabera zenbatu da.



9. Etxebizitzaren gastu arruntak: zerbitzuen saski honetan aintzat hartu diren atalak honako hauekin daude lotuta: uraren kostuak, zaborren tasa, saneamendu-tasa, komunitate-gastuak, gasa eta argindarra.



10. Garraioa: probintziako hiriburu guztietan garraio publikoak duen prezioaren arabera kalkulatu da.



11. Kontziliazioa: 0-3 adin-tartean, aintzat hartu da haur-eskolaren kostua; eta 4 urtetik gorakoek kasuan, eskolaz kanpoko jardueren, udako jardueren eta beste zaintza batzuen kostua ere kontuan hartu da.



12. Aparteko gastuak: gainerako dimentsioetan sartu ez diren ezohiko gastuak, hala nola asteko ordainsaria, txangoak, urtebetetze-egunak, uste gabeko gastuak, etab.

Emitza

2022an, haur eta nerabeen hazieraren kostua 769€-koa da hilean seme edo alaba bakoitzeko (estatuan baino 96€ gehiago). 2018an, batez beste, hileko 645€-ko kostua zehaztu zen. Ordutik, haurren zainketaren kostua nabarmen handitu da, % 19tik % 28ra bitartean⁴. Igoera hori handiagoa izan da prezioen gorakada orokorra (% 11) baino, eta horrek esan nahi du, hortaz, haurren haziera garestitu egin dela, termino erlatibotan. 2. koadroan, sorta bakoitzeko hazkunde-kostuak aurkeztu dira, adin-tarteetan bereizita, eta 2018ko datuekin alderatu dira.




2. koadroa. **Haziera-kostua, hilabeteko eta seme edo alaba bakoitzeko (eurotan eta ehunekotan)**

	(%)	(€)	(€)	Aldea (%)	Aldea (€)
	2022	2022	2018	2018 - 2022*	2018 - 2022*
Elikadura	15,2	117	104	13	13
Higienea	3,1	24	22	9	2
Arropa eta oinetakoak	6,7	53	48	10	5
Hezkuntza	14,8	114	100	14	14
Aisia eta jostailuak	4,5	35	32	9	3
Osasuna	0,5	4	4	0	0
Altzariak eta tresneria	1,5	12	11	9	1
Etxebizitza	17	131	75	75	56
Etxebizitzaren gastu arruntak	6,2	48	31	55	17
Garraioa	2,5	19	15	27	4
Kontziliazioa	15	115	117	-2	-2
Aparteko gastuak	12,5	96	87	10	9
Guztira	100	769	645	19	143

4 Save the Childrenek 2018an egindako kalkuluetan, ez zen EAeko haziera-kostua kalkulatu zehazki; aitzitik, bizi-kostu handiko autonomia-erkidegoen arteko batez besteko kostua kalkulatu zen (Euskadi, Nafarroa, Katalunia eta Madrilgo Erkidegoa). Beraz, txosten honetan, bi hauek konparatu ditugu: EAEn 2022an haurrak hazteak duen kostua, eta 2018an autonomia-erkidegoetan batez beste haurrak hazteak zuen kostua.

Haziera-kostuaren

Aldea
2018tik 2022ra



KPI

Aldea
2018tik 2022ra


(*) Oharra: kopuruak gorantz biribildu dira lehen dezimala 5 edo hortik gorakoa zenean, eta beherantz 4 edo hortik beherakoa zenean. Horregatik, zenbateko osoa ez dator bat zehatz-mehatz koadroan islatutako partiden zenbatekoen baturarekin. Gehikuntzen kalkulua 2018ko uztailekoaren eta 2022ko martxokoaren arteko kendarari dagokio.

Iturria: geuk egina (ikusi eranskina).

Etxebizitza da gehien igo den atala (50€ gehiago hilean, ia bikoitza) eta kostu osoaren gain pisurik handiena duena. Etxebizitzako ohiko gastuek ere nabarmen egin dute gora, erdia baino gehiago, 2018ko datuekin alderatuta. 2022an, pisurik handiena duten partidak etxebizitza, elikadura, kontziliazioa eta hezkuntza dira.



1. grafikoa. **Haziera-kostua seme edo alabako eta hilabeteko, adin-tarteetan bereizita, 2022an eta 2018an**



Iturria: geuk egina.

3. koadroak partida bakoitzeko emaitzak erakusten ditu zehazki.



3. koadroa. **Haziera-kostua, hilabeteko eta seme edo alaba bakoitzeko (eurotan eta ehunekotan)**


	0-3 urte		4-6 urte		7-12 urte		13-17 urte		0-17 urte	
	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)
Elikadura	66	10,7	80	11,1	133	16,5	148	17,7	117	15,2
Higienea	67	10,9	12	1,7	14	1,7	16	1,9	24	3,1
Arropa eta oinetakoak	77	12,5	35	4,9	42	5,2	61	7,3	53	6,7
Hezkuntza	0	0	139	19,3	144	17,9	129	15,4	114	14,8
Aisia eta jostailuak	17	2,8	29	4	29	3,6	57	6,8	35	4,5
Osasuna	7	1,1	7	1	3	0,4	2	0,2	4	0,5
Altzariak eta tresneria	39	6,3	19	2,6	4	0,5	4	0,5	12	1,5
Etxebizitza	131	21,3	131	18,2	131	16,3	131	15,7	131	17
Etxebizitzaren gastu arruntak	34	5,5	54	7,5	52	6,5	50	6	48	6,2
Garraioa	0	0	16	2,2	24	3	24	2,9	19	2,5
Kontziliazioa	173	28,1	123	17,1	123	15,3	68	8,1	115	15
Aparteko gastuak	5	0,8	76	10,5	107	13,3	147	17,6	96	12,5
2022	616€		721€		806€		837€		769€	
2018	551€		590€		667€		714€		645€	
España 2018>2022 (€)	65€		131€		139€		123€		124€	
España 2018>2022 (%)	12%		22%		21%		17%		19%	

Iturria: geuk egina.

Oharra: kopuruak gorantz biribildu dira lehen dezimala 5 edo hortik gorakoa zenean, eta beherantz 4 edo hortik beherakoa zenean. Horregatik, zenbateko osoa ez dator bat zehatz-mehatz koadroan islatutako partiden zenbatekoen arteko baturarekin. Gehikuntzen kalkulua 2018ko uztailkoaren eta 2022ko martxoaren arteko kundurari dagokio.

Zerk duen pisurik handiena saskian

Hauek dira, adin-tarte bakoitzean, hileko hiru gastu nagusiak:



0-3 adin-tartean, gasturik handiena kontziliazioaren atalekoa da, gastu guztiaren laurdena baino gehiago baitagokio. Partida horrek garrantzi izugarria du hauren estimulazio goiztiarrerako, eta gurasoei lan-munduan parte hartzeko bidea errazten die. Etxebizitzaren gastuarekin batera, kostuaren erdia dagokio lehen etapa honetan.

4 urtetik 6ra bitartean, hezkuntzak pisua hartzen du; hazieraren kostuaren bostena dagokio tarte horretan, eta gasturik handiena horixe izango da, 12 urte bitarteko etapan. Etapa honetan, oraindik etxebizitza da pisu handiena duten partidetan bigarrena, eta kontziliazioari guztizko kopuruaren seirena baino gehiago dagokio.

7 urtetik aurrera, elikaduraren partidak gero eta pisu handiagoa du, guztizko haziera-kostuaren seirena baino gehiago dagokio, eta haur eta nerabeen garapen fisikoari eragiten dio. Horixe izango da gasturik handiena azken etapan, ezohiko gastuen atalarekin batera.


Etxebizitzak haziera-gastuetan bigarren edo hirugarren tokia betetzen du etapa guztietan, eta pisu handiagoa du hasierako urteetan, adinean aurrera egin ahala pisua arintzen badoa ere, nahiz eta kostuak bere horretan eusten dion.

Iristen ez direnak

Handia da haur edo nerabe duintasunez hazteak dakarren kostua, eta ezinbestekoa da egoki garatzen dela bermatzeko. Hala ere, **Euskadiko familien erdiak baino gehiagok** ez dute diru-sarrerera nahikorik haziera-kostuei erantzuteko, edo zailtasunak dituzte horretarako, eta zalantzan jartzen du horrek familia horietako seme-alaben ongizatea.



2. grafikoa. **Haurren haziera-kostuei erantzun ezin dieten edo horretarakozailtasunak dituzten familiak (2022)**



Iturria: geuk egina.

la hogeita hamar mila familia daude (28.960) haziera-kostuari aurre eginezin diotenak, ezta beren diru-sarrerak guztiak horretarako erabilita ere. Horrez gain, Euskadiko familien % 40k baino gehiagok –90 mila inguru (87.651) – zailtasunak dituzte kostu horri aurre egiteko, seme bat edo alaba bat hazteko kostuetarako beren diru-sarreraren erdia baino gehiago behar dutelako.

Zer eragin izan zuen covid 19-ak hazieran?

Hazieraren kostuaren kalkulu honek, 2022ko martxoari dagokionak, atzean utzi ditu koronabirusak eragindako pandemiarekin lotuta dauden kostuak. Dena den, 2020an eta 2021ean, COVID 19-ak zenbait aldaketa eginarazi zituen beren ardurapean seme-alabak dituzten familien kontsumo-saskian.

2020ko udaberrian itxialdi zorrotza utzi ondoren, urte horretan bertan, irailean, eskolara itzuli ziren haurrak eta nerabeak, maskarak eta gel hidroalkoholikoak erabiliz. Behar-beharrezko produktu horiek berriak ziren, funtsezkoak COVID 19aren birus horretatik babesteko. Gainera, Lehen Mailako Osasun Arloa saturatuta zegoenez – batik bat olatuak zetozenean-, familia askok proba diagnostikoen kostua ordaindu behar izan zuten (PCR probak edo antigeno-testak).

Horrela, haur eta nerabeen hazierarako beharrezko produktu eta zerbitzuen saskian sartu ziren gel hidroalkoholikoa eta antigeno-testak, 0-6 urte bitarteko haur gehienek kasuan. 7-12 eta 13-17 adin-tarteetan, eskolako egunerokoan erabili beharreko maskarak ere aintzat hartu behar ziren, eta, askotan, baita gailu elektronikoak ere, eskolak sarean hartzeko, etxean izan beharreko ordenagailuak gain.

Bestalde, berrogeialdiek eta sozializatzeko ezintasunak eragina izan dute haur eta gazte askoren buru-osasunean, 13-17 urte-tartean batik bat⁵. Izugarri ugaltu ziren haur eta nerabeak psikologo batengana joateko egin ziren eskaerak, eta behar horretaz jabetuta eta osasun-sistema saturatuta ikusita, askok sistema pribatura jo behar izan zuten; eta beste gastu bat erantsi beharra zekarren horrek⁶.

Osasun-larrialdiak eragindako gastu osagarri horiek guztiak kontuan hartuta (gel hidroalkoholikoa, antigeno-testa, maskara, psikologoaren kontsulta eta gailu elektronikoak), **haziera-kostua hileko 788€-koa izatera iritsi zen, COVID 19 aurreko egoeran baino 19€ gehiago (edo % 2,5)⁷.**

5 Save the Children, [Creceer Saludablemente](#), 2021.

6 Zehazki, Spainian, psikologo batekin ordubeteko saioa, batez beste, 51 euro kostatzen da, eta familien osasun-gastuetan pisu handia duen zenbatekoa da hori. [¿Cuánto cuesta ir al psicólogo en España? Un 'ranking' de las comunidades más caras y más baratas](#). El Economista. Septiembre 2020.

7 Konparatu ahal izateko, COVIDaren testuinguruko prezioak (hertsiki harekin lotutako produktuak hartuta barnean) 2022ari dagozkio. Ildo horretatik, COVID garaiko erosketa-saskiaren kostua, 2020an eta 2021ean, hots, pandemian, are handiagoa izan zela pentsa dezakegu, antigeno-testen prezioa ez baitzegoen araututa, esaterako, edota maskaren prezioa ere handiagoa baitzen.

Funtsezko zer politika behar dira Euskadin, haur eta nerabeen haziera babesteko?

Hazieraren kostua, egiaz, inbertsio bat da, guztiontzat onuragarria dena eta guztioi dagokiguna. Haur eta nerabeen haziera eta garapena zuzentzen duen printzipio nagusia haren interes goren da. Horregatik, agindu hori betetzeko beharrezkoak diren baliabide, zerbitzu eta baldintzak ziurtatzen laguntzeko ardura dute administrazio publikoek. Horretan oinarrituta, politika publikoetarako ondoren adierazitako proposamenak egin ditu Save the Childrenek, haurren hazierarako babes-maila egokiak lortu ahal izateko, arreta berezia jarrita egoera zaurgarrienean daudenengan:



1. gomendia:

Haurren hazierarako laguntza berri bat abiaraztea, hileko 100 eurokoa, 0 urtetik 18ra bitartekoentzat eta ikuspegi unibertsal batetik, ahalik eta familia gehienengana irits dadin, gaur egungo mailetatik harago iritsiz, zerga-sistemaren bidez.

Laguntza PFEZen itzul daitezkeen kenkari fiskalen bidez antolatu daiteke, eta, horrela, seme-alabekiko familia guztiengana iritsiko litzateke laguntza hori, zuzeneko prestazio gisa; edo zerga-aitorpenean ere kendu daiteke; zergak ordaintzeko betebeharretik apartekoa litzateke. beraz⁸.

Laguntza horrek (Euskadin, hazieraren batez besteko kostuaren % 13ra iritsiko litzateke) eragin positiboa izango luke seme-alabak dituzten familia guztietan, alde batera utzita diru-sarreraren maila; baina, dena den, diru-sarrera txikieneko familiak lirateke proportzioan onuradun handienak. Horrela, haurren hazierarako laguntzen maila indartuko litzateke, familia guztiei begira, eta diru-sarrerarik gabeko edo

8 Plataforma de Infancia, Save the Children eta UNICEF España erakundeek proposamena da, [Por una prestación para la crianza. Escenarios para una deducción fiscal reembolsable en España](#), 2021eko abendua.

errenta txikiko familientzat, onura fiskalak ekarriko lituzke horrek, orain halakorik jasotzen ez dutenentzat ere bai. Horrez gain, haurren arteko pobrezia-tasa txikiagotu egingo litzateke, batez ere egoera larrienean daudenena.

Hazierara zuzendutako babes eta laguntza esparru fiskalera bideratzeak irabazi handiak ekarriko lituzke eraginkortasunari begira, eta 'non-take up' fenomenoarekin lotutako arazoak mugatuko lituzke horrek; horrez gain, prestazio fokalizatuekin lotutako estigmatizazioa ere murriztu egingo litzateke horrela.

Ildo horretatik, Familia eta Haurtzaroaren Euskal Itunean (2019) euskal administrazioek hartutako konpromisoak gauzatuko lirateke: *“Derrigorrezko gertatzen da Euskadin aurrerabidea egitea eredu unibertsal eta prestazio ekonomikoetan zabalagoa den baten alde, seme-alabak dituzten familia guztietara heltzeko gaitasuna izatea eta haur-pobrezia-aren prebentziorako eraginkorragoa izatea, [...] analisiaren bidez aurrerabidea ezagutzeko, bai zerga-politiketan bai gastuari loturiko politika publikoetan, eta beharreko diren egokitzapenetan”.*

Azkenik, diru-sarrerak bermatzeko errentan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreran oinarritutako sistemaren bidez bideratzen diren prestazio fokalizatuekin bateragarria litzateke laguntza hau, eta gaur egun Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen zuzeneko laguntzen sistema ordeztuko luke, sistema hori hobetuz eta zabalduz.

Estatu mailako beste proposamen batzuk

Hazkuntzarako laguntza ekonomikoak bi hauek bateratu ditzake: unibertsaltasunaren helburua, eta egoera zaurgarrian dauden haurrei zuzendutako laguntza indartua. Horregatik, kontuan hartuta bai bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarekin lotutako hazierarako osagarrien egungo planteamendua eta bai egungo testuinguruan erosahaltenak jasan duen higadura, hauxe proposatzen dugu:

2. gomendia:

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen duten familiei eta diru-sarrera txikikoei zuzentzen zaizkien hazkuntzarako laguntza osagarrien benetako balioa eguneratzea.

Bestalde, zerga-erreformak aukera ematen du zergetan beherapenak egin ahal izateko, batik bat oinarri-oinarrizko ondasunen kontsumoa arrazoiz eta ez hain modu erregresiboan zergapetzerakoan, besteak beste, produktu higienikoen kasuan.



3. gomendia:

Konpresak eta tanpoiak BEZaren tasa supermurriztuaren arabera zergapetzea (% 4); familiek jasaten duten karga fiskala, urtean, 7,3 milioi euro murriztuko litzateke horrela, estatu osoan. Zerga kentzea erabakiko balitz, berriz, murrizketa 12,1 milioi eurokoa litzateke urtean.



4. gomendia:

Haurren pixoihalak tasa murriztuaren arabera zergapetzea (% 10); familiek jasaten duten karga fiskala urtean 70,4 milioi euro murriztea ekarriko luke horrek estatu osoan, edo urtean 108,3 milioi euro murriztea (% 4ra jaitsiz gero). Zerga kentzea erabakiko balitz, berriz, murrizketa 134,4 milioi eurokoa litzateke urtean.



Metodologiari buruzko eranskina

I. Metodologiaren deskribapena

Azterlan honetan erabilitako estrategia metodologikoak 7 pauso ditu, eta 1. taulan laburtu dira pauso horiek.

Lehenengo, bost familia mota bereizi dira, kontuan hartuta bai familia guraso bakarrekoa den edo haurrak hazteaz bikotea arduratzen den, eta bai familia bakoitzak zenbat haur dituen bere ardurapean. Ez dauka kostu bera seme edo alaba bat hazteak eta bi edo hiru hazteak, eta ez dituzte behar berak guraso bakarreko familiek eta bikoteek. Bigarrenik, lau adin-tartetan bereizi dira haurrak: 0 urtetik 3ra, 4 urtetik 6ra, 7 urtetik 12ra eta 13 urtetik 17ra. Garrantzitsua da bereizketa hori egitea, haurrek eta nerabeek urteen joanean dituzten beharrak desberdinak direlako.

Hirugarrenik, 12 partida bereizi dira gastuetan, eta horietako bakoitzeko gastuak desberdin zenbatu dira; lehen azaldu ditugu horiek zehazkiago. Laugarrenik, Familia Aurrekontuen Inkestako (FAI) lagina mugatu egin da, horrela haziera kostuaren kalkulua egiteko adierazgarriak diren familien lagin bat osatzeko⁹.

Bosgarrenik, FAI erabiltzen ez duten partidetakako, produktuen zerrenda bat ezarri da horietako bakoitzerako, bai eta produktu bakoitzeko kopuruak ere, eta Espainiako lurralde osoko zenbait saltokitan bilatu dira prezioak. Seigarrenik, FAIren xede den lagina eta partidetakako ondasun eta zerbitzuen saskiak zehaztu ondoren, gastuak kalkulatu dira, familia motaren eta adin-tarteen arabera. Azkenik, datu horiek guztiak adin-tarteen eta partiden ikuspegitik multzokatu dira, eta behin betiko emaitzak lortu dira.

⁹ Azterlan horretan, Familien Aurrekontuen Inkestaren azken bi edizioetako datuak erabili dira, 2021ekoa eta 2020koa (eta biak aurreko urtean bildutako datuei buruzkoak dira). Informazioa biltzeko bi urte sartzeko arrazoia zera da: emaitzak fidagarriak izan daitezzen nahiko handia den lagin bat lortzea.

A1 taula. Hazieraren kostua kalkulatzeko metodologiarako pausoak

1. Familien tipologiaren definizioa	Bost familia motaren definizioa: heldua seme edo alaba batekin; heldua bi seme-alabarekin; bikotea seme edo alaba batekin; bikotea bi seme-alabarekin; eta bikotea hiru seme-alabarekin. Partida batzuetan, bereizi ezin direnez seme-alaben gastuak eta helduenak, beste bi tipologia erabili dira, konparazioak egiteko: seme-alabarik gabeko heldua, eta bikotea seme-alabarik gabe ¹⁰ .
2. Adin-tarteen definizioa	Lau adin-tarteen definizioa: 0 urtetik 3ra, 4 urtetik 6ra, 7 urtetik 12ra eta 13 urtetik 17ra.
3. Gastu-partiden definizioa	Partida hauen definizioa: elikadura, higiena, arropa eta oinetakoak, hezkuntza, aisia eta jostailuak, osasuna, altzariak eta tresneria, etxebizitza, etxebizitzaren kostu arruntak, garraioa, kontziliazioa eta aparteko gastuak.
4. FALko lagi adierazgarriaren aukeraketa	Hauek dira aukeraketarako irizpide nagusiak: (i) familiak, lehen puntuaren definizioaren arabera; (ii) gutxienez heldu bat lanean ari da familian ¹¹ ; (iii) ardurapeko seme edo alabatzat hartu da 18 urte arteko edozein adingabe, lanean ari ez dena; (iv) ez dira ardurapean adingabeak dituzten familiazat jo 16 edo 17 urteko adingabeak lanean ari direnean.
5. Ondasun eta zerbitzuen saskiaren aukeraketa	FAln erabiltzen ez diren partidei dagokienez, beste datu-iturri batzuetan eta estatuko saltokietako prezioen kontsultan oinarritutako produktuen eta kantitateen zerrendak ezarri dira.
6. Partida bakoitzaren kalkulua	Partida bakoitzean, atal horri dagokion kostua kalkulatu da, aurrez ezarritako irizpideen arabera.
7. Kalkuluen gehigarria	Aurreko pausoko kalkuluak erantsi dira, guztizko emaitzak lortzeko.

Horrez gain, Familien Aurrekontuen Inkestako autonomia-erkidegoen lagina handitu da, sarean 2.000 gurasori sarean inkesta bat eginez: 200 Andaluzian, 200 Katalunian, 200 Valentziako Erkidegoan, 200 Madrilgo Erkidegoan, eta 200 Euskadin. Autonomia-erkidego bakoitzeko 200 izateak esan nahi du ez direla estatuko lurraldeko biztanleriaren banaketaren adierazgarriak; izan ere, laginean, horiek guztiek 1/5 adierazten dute, eta errealitatean, gainerakoak baino askoz handiagoak dira Madrilgo Erkidegoa edo Kataluniakoa. Lurralde-kuotaz gain, beste kuota bat erantsi da, haurren adinaren arabera, eta erantzunetan 200 familia hartu behar dira barnean

10 Arrazoi nagusia hau da: aintzat hartu diren partida batzuetan, ezin dira bereizi helduek egiten duten kontsumoa eta hurrek egiten dutena. Adibidez, eskola-garraioa, eskola edo antzeko partidak eskusiboki haurren eta nerabeen gastuak dira; aldiz, etxebizitzaren eta hornidura-gastuen atalean, ezin dira bereizi. Beraz, partida horietan haur eta nerabeei legokiekeen gastua egozteko, bereizketa hau erabili da: seme-alabarik gabeko familia bat eta bere ardurapean seme-alabak dituen familia hori bera (helduen kopuruari dagokionez).

11 Bereizketa hori egiteko arrazoia hau da: partida batzuetan, langabezia-egoerak beherantz bidera dezake gastu osoa. Gainera, kontziliazioko partida kalkulatzeko, beharrezkoa zen aukera hori kanpoan uztea.

gutxienez, 0-1 urte, 2-3 urte, 4-6 urte, 7-12 urte eta 13-17 urte dituzten haurrak eta nerabeak dituztenak. Beraz, inkestari erantzungo zion aita edo ama baten familiaren konposizioa jakinda, aurreko adin-tarte bat aukeratzen zen ausaz, eta soilik adin-tarte horretako haurren gastuaz galdetzen zen.

Inkestan, hazieraren kostuarekin lotuta dauden eta kalkulua nazionalean sartuta dauden gastuez galdetu zaie 2.000 guraso horiei, hileko datuei eta urtekoei erreparatuta, FAIn zehaztutako egitura horri berari jarraituz. Gainera, familien konposizioaz eta familiako errentaz galdetu zaie, gero horien gastuak Familien Aurrekontuen Inkestako antzeko familietan zehaztu direnekin alderatzeko.

II. Kalkulurako kontuan hartu diren produktuei buruzko xehetasunak

Ondoren, kalkuluan sartutako saskien osagaiak zehaztu dira tauletan, Familia Aurrekontuen Inkestarekin osorik kalkulatu ez direnak edo testu nagusian zehaztuz azaldu ez direnak, zehazki.

A2 taula. Cesta de los productos de higiene

0-3 urte	4-6 urte	7-12 urte	13-17 urte
Pixoihalak	Gorputzeko krema	Gomina/Laka	Gomina/Laka
Paper-zapiak	Kolonia	Lurrina/Kolonia	Lurrina/Kolonia
Pixoihal-krema	Gela	Krema hidratatzailea	Krema hidratatzailea
Gorputzeko krema	Xanpua	Gela	Gela
Aurpegiko krema	Paper-zapiak	Xanpua	Xanpua
Kolonia	Komuneko papera	Paper-zapiak	Paper-zapiak
Haurtxoentzako gela	Desodorantea	Komuneko papera	Komuneko papera
Haurtxoentzako xanpua	Hortzetako eskuila	Desodorantea	Desodorantea
Hortzetako eskuila ¹²		Hortzetako eskuila	Hortzetako eskuila
			Konpresak eta tanpoiak ¹³

12 Haurrak urtebete egin ostean hasten direla hortzetako eskuila erabiltzen kontsideratu da.

13 Neskentzat soilik (laginaren % 50entzat, gutxi gorabehera).

A3 taula. Arropa eta oinetakoen saskia

0-3 urte	4-6 urte	7-12 urte	13-17 urte
Oinetakoak	Oinetakoak	Zamarra/jaka	Zamarra/jaka
Bodya	Pijama	Txandala	Txandala
Pijama	Galtzerdiak	Jeansak	Jeansak
Jantzi-jokoa	Barruko arropa	Galtzak	Galtzak
Galtzerdiak	Galtzak	Kirol-jertsea	Kirol-jertsea
Txanoak	Elastikoa	Poloa/blusa	Poloa/blusa
Barruko arropa*	Berokia/zamarra	Elastikoak	Elastikoak
Berokia	Kirol-jertsea	Jertsea	Jertsea
	Kirol-oinetakoak	Barruko arropa	Barruko arropa
		Galtzerdiak	Galtzerdiak
		Kirol-oinetakoak	Kirol-oinetakoak
		Oinetakoak	Oinetakoak
		Pijama	Pijama
		Berokia	Berokia

A4 taula. Aisialdiko produktuen eta jostailuen saskia

0-3 urte	4-6 urte	7-12 urte	13-17 urte
Bainurako jostailua	Txotxongiloak	Bizikleta/patinak	Bideojokoak
Sehaskarako mugikaria	Pieza handiko mekanoa	Mahai-jokoak	Telefono mugikorra
Txintxirrina	Trentxoak	Liburuak	Telefono mugikorrerako tarifa
Jardueretarako gimnasioa	Ibilgailu txikiak	Ikus-entzunezko materiala	Liburuak
Pilota	Mahai-jokoak	Buru-hausgarria	Ikuskizunetarako sarrerak
Plastilina	Bizikleta/patinak	Eraikuntza-jokoak	Museoak
Panpinak/peluxeak	Eraikuntza-jokoak	Joko hezigarriak	Jatetxe eta tabernak
Kuboa, pala eta beste-lakoak	Liburuak	Zinema edo antzerkirako sarrerak	Zinema edo antzerkirako sarrerak
Asoziazio-joko xumeak	Ikus-entzunezko materiala	Ikuskizunetarako sarrerak	
Arbela	Haur-parkeetarako sarrerak	Jatetxe eta tabernak	
Buru-hausgarria	Haurren antzerki edo filmetarako sarrerak		
Liburuak	Gizarte-etxeetako jarduerak familientzat		
Ikus-entzunezko materiala			
Haur-parkeetarako sarrerak			
Gizarte-etxeetako jarduerak familientzat			

A5.a taula. Altzari eta tresneriaren saskia (0 -3 urte)

Gela	Sukaldeko tresneria	Bainugela	Tresneria orokorra
Sehaska	Haur-aulki altua	Bainuontzia	Txupeteak
Lastaira	Biberoiak	Uretarako termometroa	Autorako haur-aulkia
Sehaska eramangarria/	Esterizagailua	Gorputzeko termometroa	Haurtxoak eramateko
Sehaska txikia	Adur-zapia	Eskuzapia	bizkar-zorroa
Sehaska eramangarrirako	Esterizagailua		Haur-kotxea
lastaira			Paseorako aulkia
Burukoa/kuxina			Taka-taka
Izarak			
Edredoia			
Tapakia			
Hezegailua			
Haurra zaintzeko gailua			
Aldagailua			
Gaeko argia			
Haurrentzako komoda			

A5.b taula. Altzari eta tresneriaren saskia (gainerako adin-tarteak)

4-6 urte	7-12 urte	13-17 urte
Haur-ohea	Ohea	Armairua
Lastaira	Lastaira	Izarak
Burukoa	Burukoa	Ohazala
Kuxina	Izarak	Errezelak
Izarak	Edredoia	Burukoa
Edredoia	Tapakia	Kuxina
Tapakia	Idazmahaia	
Errezelak	Liburutegia/Apalategia	
Armairua	Gau-mahaia	
Komoda	Tiradera-altzaria	
Jostailuen gordailua		
Argiztapena		
Aulkiak		
Haurrentzako mahaia		



